


Animaliak



ELEFANTEA

Elefantea da lehorreko animaliarik handiena. Animalia bakarra dago, elefantea baino handiagoa, eta itsasoan bizi da: balea da.

Elefanteek tronpa luzeeeeee-luzea dute janaria hartzeko, eta baita marfilezko bi letagin handiiii-handi ere.

Animaliarik handienak badira ere, elefanteak lasai samarrak dira eta arriskuan daudenean baino ez dute erasotzen. Hemen inguruan ez dago elefanterik: Afrikakoak eta Asiakoak dira.

OREINA

Oreinek hanka luze-luzeak dituzte eta, horregatik, bizkor-bizkorak izaten dira.

Orein arrek adar handi-handiak dituzte; zuhaitz adarrak diruditen bi adar handi. Urtero, punta bana hazten zaie oreinei adarretan, eta guztira hamar punta ere izan ditzakete adar bakoitzean.

1 Osatu:

Hauxe da lehorreko animaliarik handiena: _____

Hauxe da itsasoko animaliarik handiena: _____

2 Zerez hartzen dute janaria elefanteek?

☐ Tronpaz.

☐ Letaginez.

☐ Ahoaz.

3 Idatzi **E** egia bada eta **G** gezurra bada.

☐ Elefanteek arriskuan daudenean baino ez dute erasotzen.

☐ Hemengo mendietan elefante ugari dago.

☐ Elefanteak Afrikakoak eta Asiakoak dira jatorriz.

4 Zergatik dira oreinak hain bizkorrak?

5 Oreinei punta berri bat hazten zaie adarretan:

☐ Urtero.

☐ Hilero.

☐ Egunero.